Ortografia. *TT, DD, Ñ* eta *LL* KONTSONANTE BUSTIAK

Kontsonante bustien erabilera

- Euskaraz ez dira oso sarritan *ñ, ll, tt* eta *dd* letrak erabiltzen. Kontsonante bikoitz horiek **balio txikigarria edo adierazkorra** ematen diete hitzei.
  - *hauñho, Maddalen, ttantta...*
- ***Ñ*** letra duten hitz gehienak adierazkorrak dira. Badira ere letra hori duten izen bereziak:
  - *amañi, andereño, ñimiño, Oñati, Iruñea, Beñat, Garbiñe...*
- ***LL*** letra maileguetan erabiltzen da bereziki eta baita izenetan ere.
  - *lentilla, tortilla, gerrilla, Pello...*
- ***TT*** eta ***DD*** kontsonante bikoitzak ere gutxitan erabiltzen dira, eta balio adierazkorrarekin gehienetan.
  - *onddo, pottoka, Bittor, Maddi...*

1 *TT* ETA *DD* KONTSONANTE BIKOITZAK. **Idatzi hitzak definizioen ondoan.**

pattar onddo motto ttuntturro Addar

- Txapel eta hanka lodidun perretxikoa: _____
- Joaldunen kapela puntazorrotz eta koloretsua: _____
- Alkoholdun edari bizi eta bortitza: _____
- Deabruari zenbait lekutan ematen dioten izena: _____
- Txoriek buru gainean dituzten luma tenteen multzoa: _____

2 *LL* ETA *-IL-* **Aukeratu hitz zuzena esaldia osatzeko.**

- Amonak bost euroko *biletea / billetea* eman dit ogia erosteko.
- Lantegi horretan ehun bat *langile / langille* dabiltza lanean.
- Igandero *paeila / paella jaten dugu etxean.*
- Lanpara horretako *bonbila / bonbilla* hondatuta dago.
- Zulatu egin zait atzeko *gurpila / gurpilla.*

3 *Ñ* ETA *-IN-*. **Aukeratu gaizki idatzita daudenak eta zuzendu.**

- ☐ sorgiña
- ☐ koñaka
- ☐ andereinoa
- ☐ ñabardura
- ☐ moinoño
- ☐ piraina
- ☐ lainoa
- ☐ bainujantzia
- ☐ uhiña
- ☐ oinatiar
- ☐ ñimino
- ☐ ertzaña

JAKIZU

- Euskaraz *-in-* eta *-il-* letra multzoak *ñ* eta *ll* gisa ahoskatzen dira leku askotan.
- Ahoskera aldetik bereziak dira *tt* eta *dd* kontsonante bikoitzak.

LIVEWORKSHEETS